

## 1.GAIA: hizkuntzalaritzaren hastapenak

1.1. Sarrera: zer da hizkuntza? Hizkuntza, ideiak eta sentimenduak adieraziz ideia- konbinazio berri eta zehatzak sortzeko gizakiak duen gaitasun bereizgarria da. Homo sapiensak definitzen gaituen ezaugarri kognitiboa da, Homo locuensis (hitz egiten duena) deritzo. Genetikoki lortu den osaera biologikoaren atal berezia da, senez garatzen dena: berez, oharkabean eta azpian duen logika ulertu gabe osatzen den sistema neurala. Hau aztertzen duen zientziari hizkuntzalaritza deritzo, giza-esentziaren parte den gogomenaren ezaugarri bereizgarrien multzoa da. "Hizkuntza" (lenguaje, language) gizakiok berez dugun gaitasuna da, "hizkuntzak" berriz kolektibo batek hitz egiten duen hizkuntza da: euskara, ingelera, gaztelera, frantsesa, alemanera... eta munduan 7.000 inguru daude.

Hizkuntzarik gabeko bizirik irudikatzea zaila da, eta honen maisunasuna ulertzea ere bai:

- mahaia handia da (entonazioa hitz hurrenkeraren eraginez "-ia-" silaban dago)
- **mahaia** da handia (entonazioa hitz hurrenkeraren eraginez "-aha-" silaban dago)
- handia da mahaia (entonazioa hitz hurrenkeraren eraginez "-ia-" silaban dago)

Hitz hurrenkera aldatu egiten da hizkuntzatik hizkuntzara. Erreferentzia finkatua duen determinatzaile sintagma bat eta izenordain baten arteko erreferentziakidetasun erlazio posibleak:

DetS i            pro i/j  
 pro i            DetS \*i/j // Peter (i) loves him (\*i/j)    vs.    He (i) loves Peter (\*i/j)

Uztardura teoria, perpausen egitura:

- A printzipioa: anaforak
- B printzipioa: izenordainak
- C printzipioa: R adierazpenak

1.2. Zeinuak, giza hizkuntza eta animalien komunikatzeko sistemak: hizkuntzak zeinu sistemetan oinarritu izan dira (adierazlea = significante eta adierazia = significado).

Ezaugarriak:

1. ziogabetasuna: ez dute loturarik adierazleak eta adieraziak
2. linealtasuna: ezin denez dena batera ahozkatu denborak banatuak daude fonemak
3. aldaezintasuna: norbanakoak ezin du esanahia aldatu
4. aldakortasuna: denboran zehar adierazlearen eta adieraziaren arteko lotura aldatzen da

Komunikazio sistemak:

- igorlea
- hartzailea
- mezua
- seinalea
- bidea / kanala
- lekua

Ezaugarri fisikoak:

- kanala: aho-belarria, ikusmena, idazmena...
- uhin bidezko transmisioa
  - igortze irradiatua: alde guztietara preiektatzen da soinua
  - hartze direkzionala: seinalearen jatorria asmatzeko gaitasuna
- ebaneszentzia: denboran eta espazioan iraupenik ez
- diskretutasuna: hots-katea

Ezaugarri sinbolikoak:

- semantikotasuna ziogabea da A/A harremanean, ez dute baldintzatzen
- seinaleek irudi mentala piztu, oroimenean duguna eta seinaleek adierazitakoa lotu
- esanahi jakin bat dute

Egiturazko ezaugarriak:

- aldebikotasuna: hizkuntzaren bidezko ekoizpenen banaketa unitate txikiagoetan
- emankortasuna: esaldi, egitura eta hitz berriak sortzeko gaitasuna

Berezko ezaugarriak:

- espezializazioa: gure organoak eginkizun jakin batetan bereiztea
- lekualdatzea: errealak ez diren edo beste momentu baten gertatutako gauzei erreferentzia

Parte-hartzaileei dagozkien ezaugarriak:

- errol trukagarritasuna: igorlea <> hartzailea

- berrelikatzea: igorlea berak bidalitako seinalearen jabe ere bada eta honenbestez zuzentzeko eta jokabide komunikatiboa barneratzeko ahalmena du
- kultur transmisioa: haurrak ama behar du hizkuntzaren seinaleak erakusteko, ikur linguistikoak arbitrarioak baitira, belaunaldiz belaunaldi transmitituz
- prebrikazioa: informazio faltsua transmititzeko gaitasuna
- gogoetazaletasuna: hizkuntza hizkuntzari buruz hitz egiteko erabili daiteke
- ikasteko nahiz irakasteko gaitasuna
- egitura sintaktiko bitarra: bi unitate bakarrik elkar daitezke aldi berean

Berwick & Chomsky (2015)

- hierarkikotasuna ( blizko hitzen hurrenkera)
- konposizionaltasuna: hierarkia ordenak interpretazioa aldatu
- infinitutasuna: memoriak dena gogoratuko ez badu ere gramatikala izan daiteke
- errekurtsibotasuna: perpaus luzeak, batzuk besteen barruan sartzeko gaitasuna

Animaliak

- txoriak: kantuaren tonua eta luzera
- erleak: zortziak egin + eguzkiarekiko angelua = nektarraren kokalekua
- tximinoak eta gorilak: keinu bidez eta hotsez

Ezaugarri nagusiak:

- estimulu-erantzuna eskemaren arabekoak
- komunikazio itxia, oinarrizko beharrei buruzkoa
- seinaleak ezin dira deskonposatu
- seinale kopuru txikia

Giza-hizkuntzaren ezaugarriak:

- ez dago estimulu-erantzuna eskeman oinarritua (izaera boluntarioa, kontrolpean dago)
- komunikazioa ez da itxia
- seinaleak deskonposatu daitezke
- zeinuak mugatuak dira baina sistema infinitua da. Tresna mugatua baina ahalmen infinitua
- bereizgarriak:
  - + desplazamendua: iragana, oraina, hipotesia, irrealismoa...
  - + aldebikotasuna: hiztegia + gramatika = konplexutasuna
  - + emankortasuna:
    - ^ errekurtsibitatea: unitate baten barruan izaera bereko beste unitte batzuk agertzeko ahalmena, nahi adina menpeko perpaus jarritz
    - ^ hierarkia: multzo nagusi eta azpimultzoetan banatzen dira perpausaren osagaiak
    - ^ konposizionaltasuna: perpausa osagai minimoen egituraren arabera aldakorra izan daiteke eta hortaz esanahaia alda dezake

1.3. Gaitasuna eta ariketak: hizkuntzalaritzaren helburua hiztuek hizkuntza jakin bat dakitenean dakitena deskubritzea da, gogamenean duten informazio linguistikoa azterraraziz. Gaitasuna hiztunak ama-hizkuntzan esaldiak sortzeko eta ulertzeko ahalmen mentala da; ariketa hizkuntza erabiltzeko gaitasunaz baliatzean datza. Gaitasuna vs. Ariketa: ahalmena duen baina lexiko faltagatik gaizki hitz egiten duen Tarzanen adibidea.

i-hizkuntzak:

- Interna / barneratua: gizabanakoaren garunaren barnean sortzen den hizkuntza dela esan nahi du; bestela externala izango litzateke, hau da, garunetik kanpo garatu den hizkuntza litzatekeela.
- Individual / norbanakoarena: gizabanako bakoitzak duen hizkuntza gaitasunaren arabera izateaz gain, norberaren berezitasunak ere badituela ulertzen dugu.
- Intencional / intenzionala da norbanakoak hizkuntza hori garatu baina lehenago intentzio bat eta interes jakin bat izan dituela.
- Honekin guztiarekin argi geratzen da i-hizkuntza dela edozein gizakik "nahi" edo intentzio jakin bat izatearen ondorioz garunean sortu eta barneratu duen hizkuntza.

1.4. Gramatika eta gramatika motak: hizkuntzak ezin direla konplexu edo sinpleetan eta garatu eta atzerakoietan salikatu argi dago, Gramatika Unibertsalaren teoriari esker, hizkuntza guztiak orokorki aztertu eta maila berea jarri ditugu; haurrari gurasoen eredu jarraituz hizkuntza hitz egiten laguntzeko tresna da. Hitz hurrenkeren arabera sailkatzen dira munduko 7.000 hizkuntzak.

- gramatika deskribatzailea da fonologia, morfologia eta sintaxia bere gain hartzen dituen
- gramatika arau-emailea da ikastetxeetan irakasten dena da, non arauak bete behar diren.
- gramatika didaktikoa irakasten den hori da, normalean atzeritarrei zuzendua egon ohi da.

1.5. Gramatikaren atalak: gramatikaren azterketa metodologia zientifikoan oinarritzen da, hipotesiak eta teoriak egin eta hauek ebaluatuz.

- osagaiak:
  - + fonologikoak: hotsak eta fonemak konbinatzeko erregelak
    - ^ fonetika: errealitateko hots konkretuen azterketa
    - ^ fonologia: soinuen baliokidetasun-klaseak, fonemen konbinaketak aztertu
  - + morfologikoak: hitzen eraketa eta barne egitura
  - + sintaktikoak: joskera, sintagmen eta perpausen eraketa
  - + semantikoak: esanahia
- pragmatika: hizkuntza-fenomenoak eta hizkuntzaren erabileraren testuinguruko ezaugarriek dituzten erlazioak aztertzen ditu. Essaten dena, esan nahi dena eta esandako horrek lortzen duen efektua ez dira beti berdinak izango.

1.6. Disziplina linguistikoak: hauen barruan sartzen dira: biologia, neurologia, psikologia, biolinguistika, antropologia, etnolinguistika, barne linguistika psikolinguistika, soziolinguistika eta neurolinguistika.

- psikolinguistika: hizkuntzaren erabilera eta jarduna ditu aztergai, ekoizpena eta ulermena alegia. Hauek prozesatzeko prozesadore fonologiko, lexiko, sintaktiko eta semantikoak behar direnez, prozesu-kateak deritze.
- soziolinguistika: hizkuntzaren erabileraren eta gizartearen egituraketaren arteko erlazioa aztertzen du. Giza-taldeak aldatzen diren heinean hizkuntzarekiko uste, nahi, joera eta erabilerak ere aldatzen dira. Euskal Herriko egoeran euskararen erabilerak gazteengan eta orokorrean gora egin duela esan beharra dago, tranmisioak bezalaxe.
- neurolinguistika: hizkuntzaren ardura duen burmuineko atala aztertzen du (afasia eta bestelako hizketa eta ulermen arazoak esateraok).

2.GAIA: hizkuntzaren unibertsaltasuna eta aldakortasuna

2.1. Hizkuntzak, hizkerak eta barietateak:

H gaitasuna + H esperientzia = H gramatika

Hizkuntza bereko hiztunek, ez dute berdin hitz egiten:

- ezberdintasun lexikalak: tokian-tokikoak
- ezberdintasun fonologikoak: loh(s) niñoh(s)
- ezberdintasun morfosintaktikoak: kasuen aldaketa
- ezberdintasun pragmatikoak: hika, usted...

Aldaeren zergatiak: hizkuntza komunitate jakin bateko hiztunek partekatzen duten sistema linguistikoa da; komunitateko pertsona ezberdinek hitz egiten duten horrek dituen tasunen batura eta homogeneousazioa da, baina hiztunek tokian-tokiko hizkuntza aldaerake do dialektoak hitz egiten dituzte, ez hizkuntza bera.

- aldaera diatopikoak: geografiaren araberrako dialektoak
- aldaera diastratikoak: maila sozialaren araberrako soziolektoak
- aldaera diafasikoak: egoera komunikatiboaren araberrako erregistroak

Barietate estandarra sortu izan da hizkuntza askotan, hau da, hiztun gehienek arteko antzekotasun linguistikoak batuz sortu den hizkuntza "korrekto" eta ofiziala litzatekeena.

- demolinguistikoa: hiztun kopuru handia izatea
- sozioekonomikoa: herri handietan erabilia, ekonomikoki indarra duten herrietan
- soziolinguistikoa: hizkerak ospea izatea (literaturaren eraginez gehienetan)

- linguistikoa: aldaera diferenteetako hiztunek ulertzeko eta ikasteko errazena eta gertukoena  
Euskararen kasua:

- Louis Lucien Bonaparteren sailkapena: bizkaiera, gipuzkera, nafarrera, lapurtera, baxenafarrera eta xiberera (1866)
- Euskara batuaren sailkapena: mendebaldekoa, erdialdekoa, nafarrera, nafar-lapurtera eta xiberera
- ofizialtasuna: munduan 250 hizkuntza ofizial, 193 estau eta 7.000 hizkuntza

2.2. Ahozko hizkuntzak eta Zeinu hizkuntzak: munduan 6 miloi pertsonen zeinu hizkuntzak erabiltzen dituzte, eta 121 zeinu hizkuntza daudela jakin da. Zeinuak ez dira ez errealitatearen irudikapen piktorikoa (daktilologia) ez eta gestu sistema sofistikuak ere, benetako hizkuntzak dira. 1960. hamarkadan hasi ziren zeinu hizkuntzak hizkuntzatzat aztertzen. Espainian Espainiako zeinu hizkuntza eta Kataluniako zeinu hizkuntza existitzen dira. Zeinu hizkuntzak arbitrioak direla eta bakar unibertsal bat ez dagoela argi utzi beharra dago.

- eskuaren forma
- orientazioa
- mugimendua
- artikulazio gunea
- aurpegiera

Ahozko hizkuntzekiko berdintasunak:

- konplexutasun maila, funtzio bera
- artikulazio bikoitza
- gramatika: hiztegia, sintaxia...
- jabekuntza
- hizkuntz patologiak

Ezberdintasunak

- modalitatea: aho-belarri vs. Keinu-begi
- linealtasuna vs. Aldebikotasuna
- espazioaren gramatikalizazioa

2.3. Hizkuntzak ukipenean:

- pidginak: hizkuntz ukipen egoeran sortzen dira eta sal-erosketa erabilera izaten dute (bi pertsonen hizkuntza bera hitz egiten ez duten egoera). Ez dira ama-hizkuntza gisara ikasiak eta oso gramatika urria dute. Hizkuntza dominatzaileari superestratu deitzen zaio eta besteari aldiz substratu. Euskararen kasuan adibidez, Islandian, Kanadako ternuan, Indiatik iritsitako erromintxelen kasuan, xirigan (Asturiaseko teilagileak)... ikus ditzakegu adibide garbiak.
- kreolerak: pidginetatik sortutako hizkuntzak dira eta giza hizkuntzen ezaugarri guztiak dituzte, baita ama-hizkuntza moduan ikastea ere. Ez dira hortaz, hizkuntza gaizki hitz egitea edo okerra, guztiz gramatikalak eta kontzeptu historiko, politiko eta ideologikoetatik eratorriak dira.

2.4. Munduko hizkuntzak eta hauk sailkatzeko irizpideak: munduan dagoen hizkuntza kopuru guztia sailkatzea ez dator estatu kopuruak kontatzearekin bat. Hizkuntza aniztasuna Asian (%34) eta Afrikan (%31) da nabariena, Pazifikoan (%18), Amerikan (%14) eta Europan (%3) ez dago hainbestetik: Mexiko, Brasil, Nigeria, Kamerun, India, Indonesia eta Australia dira aniztasun handin duten herrialdeak.

Hizkuntzen sailkapena aldiz hainbat erataria eman daiteke:

- genetikoki: "familia" harremana dutenak, jatorri berekoak (Galesera vs. Irlandera)
- geografikoki: lurraldeen arteko proximitatea
- tipologikoki: hizkuntzaren ezaugarrien arabera

### 3.GAIA: hizkuntza garunean

3.1. Hizkuntzaren oinarri neurologikoaren aldeko ebidentziak: pertsona osasuntsu nahiz patologikoen kasuak aztertu eta neurobiologiak hizkuntzarekiko duen lotura aztertzen du neurolinguistikak. Psikolinguistikan aldiz ematen diren eta beharrezkoak diren prozesu mentalak daude aztergai; hala nola ulermena, ekoizpena eta informazioaren biltegiatzea. Garunaren hemisferio banatan garatzen dira hizkuntzaren alde desberdinak.

- lobulo okzipitala: ikusmena

- lobulo tenporala: entzumena
- lobulo frontala: adimen, nortasun eta mintzamena; nahitako mugimenduak kontrolatzen dituzten neuronak
- lobulo parietala: ukimena
- Lateralizazioa/kontralateralizazioa:
  - + ezker hemisferioa: hizkuntzaren prozesamendua, erritmoaren prozesamendua, pentsamendu matematikoa, gorputzeko eskuin aldearen kontrola
  - + eskuin hemisferioa: emozioak, sentimenduak, espazioa, gorputzaren ezker aldea

3.2. Hizkuntza garunean: neurona zirkuituak sortzen dira garunean hizkuntza sor dadin. Hiztegia (70.000 hitz inguru) eskuratze erraztasuna, denborarekiko diferentzia, "hitza mihi puntan" izatearen efektua, sailkapena (esanahiak, hotsak, kategorizazio sintaktikoa). Nagusiki kortexean eta ezker hemisferioan ematen den arren badaude alderantzizko lateralizaziodunak ere.

- afasikoak
- lateralizazioak: hemiplegikoak, entzumen dikotonikokoak, komisutomiadunak (garunaren erdibiketa sufritzen dutenak) ...

Afasia garunean ez-ohikoa den fenomeno da, normalean kolpe gogor baten, infarto baten, odol isuri baten edota istripu baten ondorioz gertatutakoa. Kolpe horrek eragina garunaren hizkuntzaren alorrean duenean, afasia deitzen zaio. Hizkuntzaren idatzizko zein ahozko ulermen eta prozesamendu arazoak gertatzen dira normalean honen ostean. Garunaren ezker hemisferioan hizkuntza garatzen den aldetik, zati hori afektatua suertatzen denean afasia orkorra deitzen zaio; hala ere, beste afasia mota esanguratsu batzuk ere badirela esan beharra dago, besteak beste: Brocarena, Wernickerena, kondukzioaren afasia... Guztietan ordea erabateko afasia da larriena, hizkuntzarekiko gaitasun guztiak galtzen baitira harekin. Izendapena, errepikapena, ulermena, adierazpena gertakari elkartuen arteko harremanak dira garunean hizkuntzari lotzen zaizkion oinarrizko guneak, afasia mota bakoitzak lesioa toki batean (agian ez osoan) edo gehiagotan kaltetu dezake burmuina; kasu honetan erabateko afasiak denak kaltetzen ditu eta pertsona ez da hitze egiteko ezta ulertzeko gai izango.

3.3. Afasiak eta bestelako hizkuntza patologiak: Brockaren afasian ulermena esan daiteke ez dagoela ia kalteturik, eta hitz egiteko era telegrafikoa dela; ulertzeko eta esan nahi dena adierazteko gai da gramaikalki zuzen ez egon arren edo oso sinple aditz guztiak infinitiboan erabiliz edo izenei artikulurik ez egokituz, baina adierazi nahi duen hura adierazteko gai izan daiteke. Pasibetan subjektua eta objektua errealtatera ekarri eta desberdintzeko arazoak suertatzen zaizkie afasia hau sufritzen dutenei. Garunaren ezker aldeak gorputzaren eskuin aldera seinaleak igortzen dituzenez, eta alderantziz, normalean Brocaren afasiarekin batera gorputzeko eskuin aldearen paralisia ematen da. Hala ere, esan beharra dago zuntz batzuen bidez dagoela Wernickeren afasia gertatzen den lekura konektatua eta hortaz elkar osagarriak direla esan genezake.

Wernickeren afasian berriz, esaldi gramatikalak eta entonazio aproposa erabili ohi dute Wernickeren afasia sufritzen duten pertsonen; aldiz logikarik gabeko esaldiak dira sortzen dituzten hauek, ulertezinak alegia. Esan nahi den horren adierazpen lexikala haien barne hiztegian ez aurkitzean neologismoak edo hitz berriak eratuz egiten dute aurrera, esan nahi duten hori haiek besterik ez ulertuz. Objektuak izendatzerako garaian, lexiko falta izanik harekin zerikusia duten hitzak esateko gai baino ez dira. Ulermenari dagokionez, ingurukoek esaten dutenaren edo testu baten adierazpenaren zentzua ez dute, eta hortaz ulermena asko zailtzen zaie ia ezer ulertzera ez iritsi arte ere.

3.4. Burmuin elebidunak: hizkuntza ikasia izan den adinaren arabera aldatu egin daiteke afasiak duen eragina hizkuntza batean edo beste batean elebidunen edota eleanitzen kasuan. Istripua, odol isurketa, infartoa edo dena delakoa sufritu baina lehenago afasikoak hizkuntzarekiko zuen menderakuntza eta erabilerak asko eragin dezaiek ondorengo hizkuntzaren "galera"-n (afasian). Hizkuntzak haien artean gainjarriak zeuden eta haien barruan gramatika eta lexikoa bereizita ala elkarrekin garatzen ote zirenak ere badu zerikusia. Baliteke hortaz, bi hizkuntzak aldi berean ez ikasi izanagatik bietako bat soilik berreskuratzea (ez du zertan ama-hizkuntza izan) edota biak aldiberekotasun antzekoarekin berreskuratu. Hala ere ez elebidun/eleaniztun honek ez du zertan beti bi hizkuntzak berreskuratze gaitasunik izan behar, batzuetan bietako bat besterik ez da berreskuratuko edo bietako bat bera ere ez da osotasunean berreskuratuko, edota bat ia %100ean berreskuratzen den bitartean bestea %20ra besterik ez da iritsiko.

#### 4.GAIA: hizkuntzaren jabekuntza: hizkuntzaren sorrera eta garapena gizabanakoarengan

4.1. Jabekuntzaren ezaugarri nagusiak: ama-hizkuntzaren ikasketa ekidin ezina dela esan daiteke, eta gainera urte gutxiren muga lortzen da menderakuntza. Hizkuntzak ikasteko haurrek helduek baina erraztasun gehiago dutela esaten da pertsona orok baitu aro kritikoa deritzon etapa bat. Oharkabea eta irakaskuntzarik gabe jasaten den prozesua den arren, hitzuneekin eta hizkuntzarekin kontaktua beharrezkoa da; hala ere beste edozein gaitasun kognitiborengandik berezia da.

4.2. Jabekuntza vs. Ikaskuntza: haurrak hizkuntzaz jabetzen dira, ez dute ikasten.

- lehen hotsak: haurrak edozein hizkuntza ikasteko gaitasunarekin jaiotzen dira, baina jatorrizko hitzunek bezala entzuteko gaitasuna oso goiz galtzen da.
- irakaskuntzak ez du zerikusirik ezagutza ez konzientea delako

4.3. Jabekuntzaren aroak. Aro kritikoa

- hotsak identifikatzea 0-12 hilabete
- zizakadura 5-8 hilabete
- hitz bakarrak 9-18 hilabete
- hitz konbinaketak 18-24 hilabete
- hiztegiaren ugalketa eta gramatikaren hastapenak 24 hilabete – hil

4.4. Bigarren hizkuntzaren jabekuntza

- ama-hizkuntza bat baino gehiago: haurrak hasieratik bi sistema bereizi al dauzka?
- bigarren hizkuntza: helduek ikasteko estrategia ezberdinak erabiltzen al dituzte?

4.5. Jabekuntza azaltzen: teoria ezberdinak

Behaviorismoa (konduktismoa): hizkuntza-jabekuntza azaltzeko proposamenetako bat behaviorismoan oinarritzen da. Honen arabera, hizkuntza ohitura bat baino ez da; ikasketa-printzipio orokorren bidez (imitazioa, berrindartzea eta zigorra, besteak beste) bereganatzen dena. Adibidez, haur batek imita dezake gurasoek "etxea" nola esaten duten. Orduan, gurasoek berrindartze positiboa egingo dute ('bai, etxea da' esan irribarre eginez, adibidez), edo ez diote erantzungo, haurraren esaldia ulertu ez badute. Hala, haurrak etxea hitza ondo esaten duela jakingo du eta erabili egingo du baina beste hitz bat esan eta gurasoak ez dutenean "saritzen" (hau da, errepikatzen) haurrak hitz hori ez dela zuzena ulertuko du eta beraz ez du berriro erabiliko. Haurra hazten den heinean gurasoek berrindartze-estrategiak aldatuko dituzte, haurraren hizkuntzaren jabekuntza aldatu egingo delako. Eta berrindartze-estrategia hauen bitartez, haurrak esaldiak moldatu egingo ditu haren hizkuntza-komunitateen ereduera egokitzeko.

Behavioristek jokabide behagarriak dituzte aztergai batik bat (ez barne-prozesuak eta jaiotzetikoak). Beraz, haien ustez, haurrek ez dute hizkuntzaz jabetzeko prozesuan eragina duen trebetasun berezirik edo jaiotzetiko mekanismorik.

Natibismoa (innatismoa): natibistek hizkuntza genetikoki datorkigun zerbait dela defendatzen dute. Noam Chomskyk proposatu zuen lehenengo aldiz teoria hau. Bere ustez, hizkuntza ez zen umeari irakatsi beharreko gauza bat, baizik eta jaiotzetik pertsonak guztiok dugun zerbait. Ordura arte hizkuntzari buruz zeuden teoria guztiak suntsitu zituen eta esandako hau argudiatu zuen. Bera konbentzituta zegoen hizkuntza pertsonak sortzetik dugun zerbait dela. Hala ere, hizkuntza hori garatu beharra zegoen. Teoria honen aurka jende askok egin zuen.

Interakzionismoa: haur bakoitzak inguruarekin elkarrekintzan garatzen du hizkuntza. Testu sinpleenak ulertzen saiatzen hasten dira, gerora zenbatu, argudiatu eta beste hainbat ekintza garatu ahal izateko. Hala ere ulermena (entzumena, arreta zein irakurketa) eta produkzioa (hitz egitea edo idaztea) txikitatik izan duten inguru soziolinguistikoaren baldintzapena dagoela esan genezake. Gurasoek eta inguruko edozein pertsonak hizketaldia moldatzen du haurraren ulermenaren arabera, erritmoa mantsotuz edota argiago hitz eginez, horrela txikienek ere elkarrizketan parte hartzeko aukera izan dezaten, bestela ez bailira ezer esatera ausartuko. Haurraren garapenaren eta heldutasunaren arabera hizkuntza aldatzen joaten da haren inguruko jendea; heldutzen doan heinean konplexutasuna eta erreflexiora bultzatutako elkarrizketak areagotu egiten dira. Esan beharra dago gurasoek haurrei egiten dizkieten zuzenketa sintaktiko eta morfologikoak aproposak direla diotela zenbait interakzionista sozialek.